

Irakurzaletasuna sustatzeko proiektua

Autor: Zabaleta Arangoa, Nerea (Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil).

Público: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. **Materia:** Educación. **Idioma:** Euskera.

Título: Irakurzaletasuna sustatzeko proiektua.

Resumen

Jakina da teknologia berriek liburuen irakurketa beste alde batera utz dezaketela. Nahiz eta haurren eskuetatik gertu egon, oraingo joera, teknologia berriak erabiltzea da. Beraz, proiektu honen helburua, haurrei liburuen mundua eskuetara hurbiltzea izango litzateke. Eskola bakoitzak bere proiektuak ditu eta agian ezingo dugu nahi beste aplikatu baina gure esperantzak galdu gabe honakoa izango zen. Kontuan izan behar dugu, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzen direnean, irakurtzen hasteko garaian gaudela eta, haurrak presionatu gabe lan egin beharko genukeela.

Palabras clave: Irakurzaletasuna.

Title: Irakurzaletasuna.

Abstract

Jakina da teknologia berriek liburuen irakurketa beste alde batera utz dezaketela. Nahiz eta haurren eskuetatik gertu egon, oraingo joera, teknologia berriak erabiltzea da. Beraz, proiektu honen helburua, haurrei liburuen mundua eskuetara hurbiltzea izango litzateke. Eskola bakoitzak bere proiektuak ditu eta agian ezingo dugu nahi beste aplikatu baina gure esperantzak galdu gabe honakoa izango zen. Kontuan izan behar dugu, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzen direnean, irakurtzen hasteko garaian gaudela eta, haurrak presionatu gabe lan egin beharko genukeela.

Keywords: Irakurzaletasuna.

Recibido 2017-09-14; Aceptado 2017-09-22; Publicado 2017-10-25; Código PD: 088053

SARRERA

Jakina da teknologia berriek liburuen irakurketa beste alde batera utz dezaketela. Nahiz eta haurren eskuetatik gertu egon, oraingo joera, teknologia berriak erabiltzea da. Beraz, proiektu honen helburua, haurrei liburuen mundua eskuetara hurbiltzea izango litzateke. Eskola bakoitzak bere proiektuak ditu eta agian ezingo dugu nahi beste aplikatu baina gure esperantzak galdu gabe honakoa izango zen.

Kontuan izan behar dugu, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzen direnean, irakurtzen hasteko garaian gaudela eta, haurrak presionatu gabe lan egin beharko genukeela. Haur guztiek ez dituzte garapen maila berdinak, denak ez dira aldi berean irakurtzen hasiko, ez dute erraztasun berdina izango eta bizkortasun maila ere desberdina izango da kasu bakoitzean. Haur bakoitzak bere erritmoa izango du, beraz, hau guztia kontuan izango dugu eta haur bakoitza bere ahalmen eta izaerarekin errespetatu beharko dugu.

Liburuekin izango duten kontaktua liburutegian; gelan bertan, irakasleak ipuin bat kontatzen dienean; etxean, gauero gurasoekin liburu bat begiratzean... izan daiteke.

Haurrek txikitatik literaturarekin kontaktua dute, nahiz eta beraiek kontziente ez izan. Haurrek ezagutzen dituzten ipuin horiek agian ahozko literaturatik ezagutu dituzte (guk ipuin bat ahoz kontatzean), abestietatik, olerkietatik... ipuin desberdinak ezagutuko dituzte eta hauek denak liburuetan islaturik daudela erakutsiko diegu pixkanaka. Agian, etxetik gelara liburu desberdinak ekarriko dituzte. Hau oso positiboa izango da momentu honetan haurrak liburutatik oso gertu sentitzen baitira.

Gure gelako liburutegia aurkeztuko diegu eta bertan beraiei utziko diegu liburuak ikusten, behatzen, ukitzen, sentitzen... Liburu mota asko dago eta Haur Hezkuntzan kontuan izango dugu marrazkiek hizkiek baino indar handiagoa izango dutela haurrengan:

- azal gogorrekoak eta bigunekoak
- zerbait deskubritzeko leihatilak dituztenak
- testura desberdineko liburuak

- marrazki sinple edo konplexuagoak dituztenak
- kolorez beterik daudenak, edo kolore gutxikoak
- ...

Haurrak liburuekin kontaktuan daudela, Irakasleok beti ondoan egongo gara, liburuak erabiltzen erakusteko, hauekin gozaten ikasteko... baina hori ere ez daukagu zuzenki egin behar, beraiek ere gu ikusiko gaituzte liburuekin kontaktuan, nola eusten eta tratatzen ditugun liburuak... Gure jarrera izango da beraien eredu eta guk azaltzen diegun jarreraren aurrean beraiek ere hauenganako hurbiltasuna edo urruntasuna adieraziko dute. Honen gehigarri familiaren elkarlana izango da. Etxean ere liburuenganako jarrera positibo bat izatea ezinbestekoa izango litzateke. Gurasoen inplikazioa oso garrantzitsua izango da.

Hau guztia kontuan izanik bi proposamen aurkezten ditut irakurzaletasuna sustatzeko, bat Haur Hezkuntzari begira eta bestea Lehen Hezkuntzari begira. Bigarren honetan, zailagoa izanik liburuenganako jarrera baikorra izatea, hemen telebistak eta teknologia berriek indar handiagoa izaten baitute.

HAUR HEZKUNTZARAKO PROPOSAMENA

Behin gelako liburutegiaren antolaketa hurrekin adostu dugularik, **maleta ibiltaria** proiektua izango genuke. Hiruhilabete bakoitzean gelako liburu bat edo bi aukeratuko ditugu. Irakasleak berak ekar dezake edo gelan edo eskolako liburutegian ditugun liburuetatik aukeraturikoak izango dira.

Aurretik ., gelan landuko dugu hurrekin. Gero, familiakoen kolaborazioa ezinbestekoa izango litzateke. Hurrek gelatik etxera **maleta ibiltaria** eramango lukete. Etxean, gurasoekin irakurri beharko lukete liburua eta jarraian ipuinari buruzko marrazki bat egin beharko lukete **maleta ibiltariaren "Liburuaren koaderno"**n.

Horrela gero gelara itzultzen denean maleta, gelako ume guztien etxetik pasa ondoren, maletan izan ditugun liburu desberdinen inguruko marrazkiak izango genituzke. Etxean gurasoekin irakurtzerakoan, aurrek zerbait positibo bezala ikusiko dute, gurasoekin egiten duten irakurketan berain arteko erlazioa sendotu eta liburuak zerbait positibo eta lasaiarekin erlazioatuko dute.

LEHEN HEZKUNTZARAKO PROPOSAMENA

Proposamen bat, gelan **Liburuaren txokoa** izatea izango zen. Gelako liburutegian zati bat eskaini geniezaioke edo beste txoko bat gehiago jarri genezake. Hau gelaren araberako izango da.

Hiruhilabeteko, haur bakoitzak etxetik (edo liburutegitik) komiki bat, euskarazko liburu bat eta erdarazko liburu bat ekartzea eskatzea da. Hurrek aurretik irakurria ekarri beharko dute gelara eta gelako liburuaren koadernoan honi buruzko azalpentxo bat egin beharko dute:

LIBURUAREN IZENA:	DATA:
IZENBURUA:	
EGILEA ETA MARRAZKILARIA(K):	
GENEROA: abenturazkoa, misteriozkoa, beldurrezkoa, maitasunezkoa, komedia...	
IRITZI PERTSONALA: Zergatik gomendatzen duten esan beharko dute. Zein alderdi gustatu zaizkion adieraziz eta zeintzuk hobetu edo aldatuko lituzke.	
NOTA: Liburuari zein nota jarriko liokeen.	

Interesgarria izango litzateke, irakasleak ere gelako irakurketa bat egitea, ozenezko irakurketa kolektibo bat egiteko. Horrela hurrek ere irakaslea inplikaturik ikusiko dute beraiekin eta eredu izango da. Hau asteen behin egin genezake, aste bakoitzean liburu edo obra bateko kapitulu bat irakurriz.

Modu honetan liburuak irakurriz, hizkuntzaren kalitatea hobetuko genuke.

Hau, sakonago egiteko, hilabetero, maila txikiagoko hurrekin irakurketa saioak egin genitzake.

Beste proposamen bat **lpuinen tailerra** izango litzateke. Hau erdarazko zein euskarazko arloetan landu genezake.

Tailer honetan, sarritan irakurritako testu mota desberdinekin erlazionatutako ekoizpen idatziak sor genitzake. Horrela, irakurketarako zaletasuna eta ikasleen jakin min naturala suspertzeaz gain, testu mota desberdinen inguruko hausnarketan trebatuko genituzke ikasleak. Irakurtzea plazer bihurtu eta modu eraginkorrean irakurtzen ikasiko genuke.